

## REVOLUTION JAMROCK 8

Intxaurrondo Kultur Etxea

Urriak 18, ostirala, 22:00 14 € (aldez aurretik 12€)

Urriak 19, larunbata, 22:00 18€ (aldez aurretik 16€)

\*Bi egunetako bonoa: 25€

## MAX ROMEO REGGAE LEGENDAK ETA BERE ALABAK IREKIKO DUTE BINILO BERRI BATEKIN DATORREN REVOLUTION JAMROCK JAIALDIA

**Zortzigarren edizioak Gazteszenatik Intxaurrondo Kultur Etxera  
egingo du salto lehen aldiz, album berri bat eta hamabi artistekin.**

**70eko hamarkadako Max Romeo (Jamaica) legenda Donostiara helduko da lehen aldiz bere alaba Xana Romeo eta Charmax Band talde jamaikarrarekin. Kartela partekatuko dute General Levyrekin (Ingalaterra), zeinak Donostian filmaturiko bideklipa aurkeztuko duen, eta, beste nazioarteko eta estatu mailako hamar artistekin ere bai: Tracy de Sá (India), Mistilla (Italia), Bojaman and Grompy (EH), Bass Herri Sound System (EH), Elsa K.Bless (EH), Eira, Gustab and Ras Lujah (EH) eta Revolutionary Brothers (EH).**

Maila goreneko nazioarteko eta estatu mailako kartel batekin datorkigu Revolution JamRock Donostia Reggae Festival, espainiar Estatuko reggae eta hip hop areto-jaialdirik sendoenetako bat, hain zuzen. Zortzigarren edizio honek dozena bat artista eta binilo berri bat dakartza, azken hau *Youth Riddim* izenekoa, eta, Revolutionary Brothers anaiek ekoiztutakoa, reggae eta hip hop zaleen gozagarri.

Beste berrikuntzetako bat areto berria izango da, alegia, lehen aldiz Gazteszenatik Intxaurrondo Kultur Etxera lekualdatuko baita jaialdia. "Edizio hau aurkezpen oso berezi

batekin dator, gainera: gure proiektu berria biniloan, nazioarteko izen ospetsuekin eginikoa, besteak beste, General Levy. 500 kopiako bildumazaleentzako edizio berezia izango da, zehazki, ziur jendeari gustatuko zaiona, koloretik hasita”, azaldu du Unai Martinezek, Revolutionary Brotherseko kideak. Era berean, honakoa gaineratu du: “Lan handiko urtea izan da eta gustura gaude oso emaitzarekin”.

**Max Romeo** dugu jaialdiko izarrik handienetako bat. 70eko hamarkadako artista handia baita bere alaba **Xana Romeorekin** eta bere **Charmax Band** talde jamaikarrarekin dator. Berebat, **General Levy** ere izango dugu, bai aipatu diskoa, bai gipuzkoar hiriburuan filmatutako bideoklipa eszenatokian aurkezten.

### **Ostirala, Levy eta euskal eszena**

Urriaren 18a, ostirala, potentziaz beteriko euskal eszenarekin datorkigu, General Levy nazioarteko artista buru izanik. “Levyk hamarkada bateko harremana du jaialdiarekin eta gurekin. Aipatutako binilo berria eta Revolutionary Brothersek Donostian filmaturiko bideoklip berria erakustera dator, hain zuzen ere. Postprodukzio animaturiko bideoklipa da, gainera. Oraintxe bertan Levy nazioarte mailan punta-puntan dago, eta, orain dela hamabi urtetik jaialdi handi guztietan hartzen du parte: Ameriketako Estatu Batuak, Brasil, Mexiko, Holanda, Italia, Portugal, Argentina, Ingalaterra, Frantzia... Musika-mugak apurtu ditu eta espainiar Estatuan Viña Rock jaialdian hiru urtez jarraian izan da”, adierazi du Unaik.

Era berean, ostiralean sound system eszena izango da nagusi, Euskal Herriko DJ eta abeslariarekin. “Sound Systemen kultura oso modan jartzen ari da, eta, gau berezi bat egin nahi izan dugu honekin, euskal eszenaren erakusgarri ere izan dadin, gainera. Hemengo taldeen aldeko apustua egin dugu beti, gure xedeetako bat hasi berria den jende gaztea bultzatzea baita jaialdiaren bidez. Indartsu dator gaua”.

Hala, **Bojaman and Grompy** zarauztarrak izango ditugu, gaztelerazko euren dancehallarekin. “Orain dela urte batzuetatik Bojamanek hainbat kolektiborekin lanean dihardu. Energiatz beteriko Grompyekin, hasieran gure jaialdietara zetorrena ikusle gisa

eta orain eszenatokira salto egingo duena; ziztu bizian konektatuko dute ikusleriarekin”, dio Iker Martinezek, Revolutionary Brothersen bigarren kideak.

Bakiotik zuzenean etorriko dira **Bass Herri Sound System**, euren eusko-jamaikar ukituarekin: “Sound system estilo potentea da speaker batekin, grabeak ongi igotzeaz arduratuko dena. Artisau-soinua, tradizionala eta sutsua, orain punta-puntan dagoena”.

Azkenik, gaua ixteko, **Revolutionary Brothers** anaiak izango ditugu. Euren musika-proiektu berria aurkeztuko dute abestiak jarritz, eta, zenbait sorpresa ere prest dituzte, gau horretan azalduko direnak pixkanaka.

## Larunbata, legenda eta nazioartekoak

**Max Romeo** jamaikar musikari beteranoa Donostiara helduko da lehen aldiz larunbatean, urriak 19, bere alaba **Xana Romeo**ekin eta bere talde jamaikarrarekin: **Charmax Band**. “70eko hamarkadako handietako bat dugu. Abesti mitiko bat du, *Chase the Devil*, mundu guztiak ezagutzen duen abestia da, eta, bertsio asko dituena, tartean, Prodigyren bat. Reggae ereserkia bat da, mundu osoan barreiatu dena, gainera. Era berean, Romeok ere garai berrietara egokitzen jakin du maisuki, eta, lanean jarraitu du, diskoak ateraz hainbat ekoizlerekin”, zehaztu dute. Jaialdi honetan bere alaba Xana Romeoekin egongo da; “oso-oso ondo abesten du, kanta modernoak, gainera, bere taldearekin batera”.

Frantziar bizi den **Tracy de Sá** indiarra bere dancehall eta hip hoparekin datorkigu espainiar Estatura lehen aldiz. “Indiar erritmoak, zuzeneko indartsu eta izugarriekin. Jaialdiak egin duen apustua da, frantziar Estatuan oso ongi funtzionatzen baitu. Espainiar Estatuan asko jarraitzen dute Spotify bidez, baina ez da sekula bertaratu. Hip hop moderno eta freskoa egiten du, indiar oinarriekin. Arrakasta handia izango du oholtza gainean”, adierazi dute.

Esstreinako izango da espainiar Estatuan **Mistilla** artista italiar gaztea. “Oso reggae ona egiten du; izan ere, Italia artista handien harrobia da, genero honek jarraitzaile asko ditu bertan eta leku nabarmena du europar eszenan; eta hori antzeman egiten da. Bere herrian primeran ari den eskola berria da; eta ziur hemen ere hala izango dela”.

Iruñerriko eskola undergroundetik datorkigu **Elsa K. Bless** iruñearra, **Herriko Kings Sound** disko-jartzaileekin. Zalantzarik gabe, dena emango dute. "Iruñeko Rojo Vivo bandako korista eta kidea, abeslari gisa ere bere proiektua du eta lan oso-osoa interesgarria egiten ari da".

Azkenik, gaua ixteko, bertako abeslariak ariko dira: **Eira, Gustab** eta **Ras Lujah**, Donostia, Erreterria eta Hernanitik, hurrenez hurren. "Etxekoak ditugu, eta, euren abesti berriak aurkeztuko dituzte gurekin, Revolutionary Brothersekin".

## REVOLUTION JAMROCK 8

C.C. Intxaurrondo

18 de octubre, viernes, 22:00, 14€ (anticipada 12€)

19 de octubre, sábado, 22:00, 18€ (anticipada 16€)

\*Bono de dos días: 25€

### **LA LEYENDA DEL REGGAE MAX ROMEO Y SU HIJA ABREN EL CARTEL DEL FESTIVAL REVOLUTION JAMROCK, QUE LLEGA CON UN NUEVO VINILO**

***La octava edición salta por vez primera de Gazteszena al Centro Cultural Intxaurrondo con un singular álbum y una docena de artistas***

**La leyenda de los 70 Max Romeo (Jamaica) llega por primera vez a Donostia junto a su hija Xana Romeo y su banda jamaicana Charmax Band, que compartirán cartel con General Levy (Inglaterra) que presenta su videoclip grabado en Donostia así como una decena de artistas internacionales y nacionales: Tracy de Sá (India), Mistilla (Italia), Bojaman and Grompy (EH), Bass Herri Sound System (EH), Elsa K.Bless (EH), Eira, Gustab and Ras Lujah (EH) y Revolutionary Brothers (EH)**

Con un cartel internacional y nacional de altura, la Revolution JamRock Donostia Reggae Festival se ha consolidado como uno de los festivales indoor de reggae y hip hop más potentes del Estado español. Esta octava edición llega con una docena de artistas y un nuevo vinilo producido por Revolutionary Brothers bajo el nombre de *Youth Riddim*, que hará las delicias de todo amante del buen reggae.

Otra de las novedades será su nueva ubicación, ya que por vez primera salta de Gazteszena al Centro Cultural Intxaurrondo. "Esta edición llega con una presentación muy especial: nuestro nuevo proyecto de vinilo, grabado con artistas de renombre internacional donde uno de los destacados es General Levy. Una edición limitada de

coleccionista de 500 copias que no dejará indiferente a nadie, empezando por el color”, explica Unai Martínez, de los Revolutionary Brothers, a la vez que añade: “Ha sido un año de intenso trabajo y estamos muy satisfechos con el resultado”.

Las estrellas principales del festival son la leyenda jamaicana de los años setenta **Max Romeo**, junto a su hija **Xana Romeo**, que llegan con su grupo **Charmax Band** así como **General Levy**, que presentará el citado disco así como su nuevo videoclip grabado en la capital guipuzcoana.

### **Viernes, Levy y escena vasca**

El viernes, día 18 de octubre, llega cargado de potencia con la escena local, encabezados por el internacional inglés General Levy, con su propia carta de presentación: “Levy tiene una relación de una década con el festival y nosotros, y viene a presentar tanto el nuevo vinilo antes citado como un tema grabado en videoclip en Donostia de la mano de los Revolutionary Brothers con animación incluida. Un videoclip con postproducción animada. Ahora mismo Levy está en el top internacional y desde hace doce años toca en todo festival general que se precie: Estados Unidos, Brasil, México, Holanda, Italia, Portugal, Argentina, Inglaterra, Francia... Ha roto fronteras musicales y en el Estado español lleva ya tres ediciones seguidas yendo al Viña Rock”, relata Unai.

Asimismo, el viernes se compondrá de escena sound system con DJs y cantantes de Euskal Herria. “Se está poniendo muy de moda la cultura del equipo sound system y hemos querido dedicarle una noche especial, representando, además, la escena vasca. Siempre hemos apostado por grupos de aquí, porque uno de nuestros objetivos es impulsar a la gente joven que está comenzando por medio del festival. Va a sonar muy potente”.

Así, los zarauztarras **Bojaman and Grompy** presentarán su dancehall en castellano. “Desde hace unos años Bojaman lleva trabajando con distintos colectivos. Junto al enérgico Grompy, que venía a nuestros festivales y ha saltado al escenario, conectarán rápidamente con el público”, cuenta Iker Martínez, el segundo miembro de los Revolutionary Brothers.

Desde Bakio llega **Bass Herri Sound System** con su toque eusko-jamaicano: "Es el estilo sound system potente con un speaker, que se encargará de subir bien los graves. Sonido artesanal, tradicional y vibrante que está muy en boga ahora".

Por último, cerrarán la noche los **Revolutionary Brothers**, que presentarán su nuevo proyecto musical pinchando los temas y con varias sorpresas que se irán desvelando a lo largo de la noche.

### **Sábado, leyenda e internacionales**

El veterano músico jamaicano **Max Romeo** llegará a Donostia por vez primera el sábado, 19 de octubre, para deleitar al público junto a su hija **Xana Romeo** y su grupo –también jamaicano– **Charmax Band**. "Es uno de los grandes exponentes de los años setenta; tiene una canción mítica, *Chase the Devil*, un tema que todo el mundo conoce y con muchísimas versiones, entre ellas, una de Prodigy. Es un himno de reggae que ha dado la vuelta al mundo. Asimismo, Romeo ha sabido adaptarse a los tiempos y ha seguido trabajando y sacando discos con numerosos productores", apuntan. En este festival irá acompañado de su hija, Xana Romeo, que canta "muy, muy bien con temas modernos junto a su grupo **Charmax Band**".

La india afincada en Francia **Tracy de Sá** viene con su dancehall y hip hop al Estado español por vez primera. "Ritmos indios con una fuerza y un directo arrollador. Es una apuesta del festival que funciona muy bien en el Estado francés. En el Estado español es muy seguida por Spotify, pero jamás ha estado. Un hip hop moderno y fresco, con bases indias que tendrá mucho éxito en el escenario", indican.

También por primera vez en el Estado español, desde Italia llega la joven **Mistilla**: "Hace un reggae muy bueno, Italia es una cantera de grandes artistas, con muchos seguidores en el género, y un papel destacado en la escena europea; y eso se nota. En Italia es muy conocida, es muy joven, con unos temas y directo muy potente. Es la nueva escuela que está funcionando excelentemente en su país; y seguro que aquí también".

De la escuela underground de Iruñerria, llega la pamplonesa **Elsa K. Bless**, con los DJs **Herriko Kings Sound**, que, sin duda, darán el do de pecho. "Miembro y coristas de la banda Rojo Vivo de Iruña, tiene también su proyecto propio como cantante y está haciendo un trabajo muy, muy interesante".

Por último, para cerrar la noche, actuarán los cantantes locales, **Eira, Gustab y Ras Lujah**, desde Donostia, Erreterria y Hernani, respectivamente. "Son de la casa y presentarán sus nuevos temas con nosotros, con los **Revolutionary Brothers**".